

## Nola lagundu gure seme-alabei ikasketekin eta etxerako lanekin etxealdian?

Etxealdi garai honetan hainbat guraso arduratuta gaude seme-alabei ikasketekin lagundu behar diegulako eta horrek zalantzak ere sortzen dizkigulako. Aldaketa handia da beraientzat eta guretzat. Euskaraz ez dakiten guraso askoren kezka izaten da hori, baina baita euskaraz dakigun gurasoona ere. Aholku batzuk proposatzen dizkizuegu lagungarriak izan daitezkeelakoan.

### ✓ Egokia eta lagungarria da ikasteko ohiturekin laguntzea

- Garrantzitsuena ikasteko ohiturekin laguntzea da. Guretzat aldaketa handi da gure seme-alabek etxetik ikasi behar izatea, baina beraientzat ere bada. Ez da erraza egokitzea. Ikasteko ohiturekin laguntzea oso baliagarria izango da beraientzat.
  - o Zein izango da ikasteko eta eskolako lanak egiteko denbora tartea edo ordutegia? Errutina batzuk adostu behar ditugu eta betetzen lagundu behar diegu. *Adibidez (eta beraien adina kontuan hartu beharko genuke): gosalduta ondoren materiala prestatu eta 45 minutu etxerako lanei eman, ondoren atseden hartu, jarraian...*
  - o Non ikasiko dute? Beti leku bera izan dadila eta ikasketetara egokitua. Bakarrik arituko den gune bat izan daiteke edo bat baino gehiago arituko diren gune bat, baina beti leku bera izan dadila.
  - o Zein izango da antolaketa? Egin beharrekoak antolatu, gauza bakoitzari zein denbora emango zaion aurreikusita, eta abar. Beraiek ez badira antolatzeko gai, guk lagundu beharko diegu.
  - o Konstanteak baina malguak izan: ez da erraza beti eta ondo aurreko irizpide horiek betetzea. Saiatu beraien jokabideak ulertzen, baina konstanteak ere izan eta lagundu poliki poliki ohiturak bereganatzen.
- Errefortzu positiboak ematea lortu behar dugu, hori da motibatze modua
  - o Egiten ari diren lanarekiko eta ahaleginarekiko errefortzuak, eta ez lortzen ari diren emaitzekikoak. Adibidez: denbora ondo baliatzea, ikasketekiko interesa erakustea, ohiturak hobetzeko urratsak ematea, eta abar. Gauza horiekiko errefortzuak ematea eta zorientzeak asko motibatzen du.

### ✓ Egokia eta lagungarria da eskolako lanekiko interesa erakustea eta laguntzea

- Egunero beraiekin jarraitzea eta zer egin behar duten galdetu. Irakasleek bidali diguten informazioa izango dugu antolatzen laguntzeko. Adinaren arabera, behin antolaketa adostutakoan ez da beharrezkoa izango gu bertan geratzea.
- Nola egin ez dakiten ariketa edo gairen bat badute, eskatu guri azaltzeko ahal duten moduan. Modu horretan edo guk irakurritan ulertzen badugu, eta arlo behar adinako ezagutza maila badugu, laguntza eskaini:
  - o Ondo ulertzen ez duen zerbait bada, azalpenak eman.
  - o Gai baten inguruk lan bat egin behar badute: informazio osagarria bilatzen lagundu, material baliagarria eskura jarri eta gaiari buruz hitz egin beraiekin aurre-ezagutzak aktibatzeke.

## ⊗ Ez da egokia eta ez da lagungarria

- Ez gara irakasleak eta ez dugu arlo guztiei buruzko ezagutza izan beharrik. Gure seme-alabei lagundu nahi diegun gurasoak gara. Ezin diegula lagundu ikusten dugunean, interesa erakutsi, konfidantza eskaini, eta eskatu ariketa egiten saiatzeko, naiz eta behar bada gaizki egingo duten. Irakasleak zuzenduko du eta beharrezko azalpenak emango dizkio.
- Ez egon denbora guztian beraien gainean. Ez da beharrezkoa ezta aproposa ere denbora guztian beraiekin egotea. Gero eta autonomoagoak izan behar dute eta horretarako antolatzen, informazioa bilatzen et abar ikasi behar dute. Prozesu bat da. Kasu batzuetan bertan egotea beharrezkoa izango da, bereziki txikiak direnean eta oraindik gutxieneko ohitura batzuk garatu ez dituztenean. Baina kasu gehienetan lagundu baino kalte egiten diegu.
- Laguntzeko zailtasunak ditugunean ez da komeni larritzea. Une egokia izan daiteke nota edo emaitzei “garrantzia kentzeko” eta ikasteko ohituretan eta prozesuetan arreta jartzeko. Emaitzak soilik axola bazaizkit eta arlo batzuetan zailtasunak dituela eta ezin diodala lagundu ikusten badut, etsigarria izango da. Aldiz, ikasteko ohituretan jartzen badut arreta, norabide horretan beharrezko gaitasunak garatzen laguntzen badiot, eta errefortzu positiboak eskaintzen badizkiot, laguntza handia eta ona eskaintzen ari naizela konturatuko naiz.

## ➤ Kontutan izan

- Irakasleekin komunikazioa funtsezkoa da. Beraiek esan behar digute zeintzuk diren helburuak eta zeran nahi duten laguntzea. Adierazi beharko ligitteke, adibidez:
  - Zer nahi duten ikasleen aldetik: zenbat denbora eskaini behar lieketen ikasketei, zenbat irakurtzeari, zenbat idazteari, eta abar.
  - Zeintzuk diren gure seme-alabei bidali dizkieten lanak: behar bada ez xehetasun askorekin, baina bai ikuspegi orokor bat
- Gainera, irakasleek adiera behar ligukete zein den beraiekin komunikatzeko modua zalantzak argitzeko edota seme-alabei laguntzeko moduan adosteko.